



ALEA

arabako aldizkaria

AMAIA CASTELLANO

**"GUZTIZ BESTELAKOA
DEN MUNDU BAT DAGO
LURPEAN"**





AZAROAK 30

Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Eguna

HIRI HEZITZAILEA DA
VITORIA-GASTEIZ

| **JARDUERAK** |
azaroaren 26tik aurrera

Ikusi hemen



vitoria-gasteiz.org/hezkuntza





ALEA 173

2018-11-23 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

LAURENT RICHARD

Amaia Castellano espeleologoa.

Aurkibidea

- 4 **Sakonean:** BizikoopOn, etxebizitza komunitarioa eraikitzeko kooperatiba.
- 8 **Protagonista:** Amaia Castellano espeleologoa.
- 12 **Iritzia:** 'Ezjezagunak', Oier Llinas Villasante.
- 13 **Iritzia:** 'Gure GPSa', Txema Ramirez de la Piscina.
- 14 **Gutuna:** 'Uraren kudeaketa bateratuago baterantz'.
- 16 **Sarean:** #Mastodon.eus
- 17 **Iruditan:** Lazarraga Sarien bosgarren edizioa.
- 18 **Gizarte:** Indarkeria sexistaren aurkako eguna.
- 20 **Gizarte:** Zesio-137 isotopoa aurkitu dute Garoñan.
- 22 **Esanak eta datuak.**
- 23 **Laburrak.**
- 24 **Euskara:** 'Kantari' eta Alea festa.
- 26 **Sexualitatea:** 'Sutsu arduratsu', Emaize.
- 27 **Musika:** 'Violética', Igor Muñoz.
- 28 **Gure Bazterrak:** Axarte.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena“

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da
erronka*

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Miriam Biteri

Esti Lanao

Estiburu Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Asteko kolaboratzaileak: Oier Llinas, Txema Ramirez de la Piscina, Igor Muñoz eta Emaize.

ALEAk ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

Etxea eta bizitza partekatzeko asmoa, abian

BizikoopOn dute izena eta hamar lagun dira. Iragan urtetik daramate kooperatiba bat osatu eta etxebizitza komunitarioa eraikitzeke ideiar bueltak ematen; Gasteizko Alde Zaharrean kokatu nahi dute egitasmoa. "Etxebizitzaren beharra hor dago, noski, baina elkarbizitzak du pisu handiena".

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute**

Argazkiak: **DosPorDos**

Etxebizitzaren problematikari kolektibo bezala erantzuteko modu bat lantzen ari da gasteiztar talde bat. BizikoopOn bataiatu dute etxebizitza komunitarioa eraikitzeke kooperatiba bat sortzeko asmoa. "Etxebizitza proiektua eta elkarbizitza eredu da; beste kooperatiba batzuetan ez da bizitza komunitarioaren alde egiten, eta hemen bai, hemen elkarbizitzak garrantzi handia du". Hala adierazi du Arantza Basagoitik. Udaberrian bildu zen taldera, eta egun guztira hamar lagun daude, helduak eta umeak barne, eta lehenbiziko urratsak egin dituzte amesten duten proiektua martxan jartzeko.

Erabilpena lagatzearen figura du oinarri etxebizitza komunitarioaren kooperatibak, alegia etxebizitzaren jabea hasieratik amaiera arte kooperatiba da; kooperatibistak etxea erabiltzeko eskubidea du baina ez jabetza. "Jabetza kolektiboa izango da; ez da etxebizitza kooperatiba arrunt bat eraikina egiteko sortzen dena soilik". Leire Zelaia BizikoopOneko kideak argitu duenez, kooperatibaren partaide direnek, hasiera batean, diru sarrera bat egingo dute, eta hileroko kuota bat ordainduko dute. "Proiektutik ateratzen zarenean hasierako diru sarrera hori itzuliko zaizu, eta aukera izango du beste pertsona batek zure tokia hartzeko".



Iazko azaroan hasi ziren lagun artean ideiarengatik hitz egiten. Batik bat elkarbizitza sustatzeko eta egunerokotasunean espazio gehiago elkarbanatzeko gogotik etorri da plana. "Asmoari bueltak ematen hasi ginenean planteatu genuen etxebizitzak espazio komunak izan behar dituela. Argi dugu espazio pribatuak mantendu behar ditugula, baina jarduera batzuk konpartitzeko aukera izan behar dugu, sukaldea, egongela... Ez dugu oso irudi landua, aurrera goazen heinean joaten gara zehazten zer gustatuko zaigun elkarrekin egitea eta zer bakarrik".

Taldekideek uste dute etxebizitzaren arazoaren aurrean ere jarrera bat hartzea suposatzen duela proiektuak, "30 urtez hipoteka batean ez sartu nahi izatea, adibidez". Halaber, eredu honek jabetza kolektiboa izateko alternatiba bat eta ohiko merkatutik alde egiteko aukera eskaintzen duela uste dute. "Etxebizitzaren arazoaren aurrean erantzun partzial bat da, ez dio jendarte guztiak duen beharrari erantzuten, baina pertsona talde batzuei agian bai. Ez da erantzun globala, argi dugu", nabarmendu du Zelaiak.

Alde Zaharrea

Gasteizko Alde Zaharrea kokatu nahi dute hiriko lehen etxebizitza komunitarioa. "Nolabaiteko lotura dugu hemen, hemen bizi gara gehienak, eta gure ohiko komunitatearekin lotura mantentzea

BizikoopOn taldeko kideek familia argazkia egin dute ALEarentzat.

"KOOPERATIBA ARRUNTETAN EZ DA BIZITZA KOMUNITARIOAREN ALDE EGITEN"

ARANTZA BASAGOITI



Proiektuaren aurkezpena egin dute BizikoopOneko kideek azken egunotan.

inportantea da guretzat", azaldu du Zelaia.

Aurrean lan asko dute egiteko. Barne mailan, proiektuaren alde gehienak zehazteko dituzte, finantzaketaren inguruan hitz egiteko hitzordua dute hurrengo astean, kooperatibaren estatutuak ere aztertu eta eztabaidatu beharko dituzte... Gainera, asmo komunitarioa den neurrian, proiektua zabaldu eta egiten ari direnaren berri eman nahi diete auzokideei zein bertako gizarte eragileei, eta aurkezpenak antolatzen ari dira. "Asmoa komunikatzea inportantea da guretzat, ezinegonak sortu daitezkeelako; auzoari komunikatu nahi diogu eta hori egin dugu, harrera ona izan da, oso aberatsa, ez digute gehiegi kuestionatu".

Erakundeen parte-hartzea

Orube bat erostea, eraikin bat konpontzea... aukera desberdinak aztertzen ari dira BizikoopOn taldeko kideak, eta informazioa biltzen ari dira egunotan, "ez gara honetan adituak, ez gara profesionalak, eta lan asko eskatzen du ideia aurrera eramateak".

Erakundeekin ere hitz egin dute, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gasteizko Ensanche 21

Zabalgunea elkartearekin hain zuzen, urte batzuetarako lagapen baten bitartez etxebizitza eraikitzeko orubea lortzeko asmoz. "Gure lehen aukera da hori, prezioa gehiegi ez igotzeko, alde batetik, eta, beste alde batetik, uste dugulako horrelako ekimenaren aurrean administrazioek konpromisoa izatea ona dela". Izaniko bilkuretan ez dute ezer zehaztu, baina administrazioen aldetik jarrera oso zabala aurkitu dutela nabarmendu du Basagoitik. "Eusko Jaurlaritzako arduradunek esan ziguten gaur egun administrazioaren politika alokairua sustatzea dela, eta ikusten dute eredu honen bitartez ere eraiki daitekeela etxebizitzaren portzentaje bat. Zabalgunea 21 elkartearen ere asko gustatu zitzairen ideia. Ezagutzen dute eredu, eta honen inguruan proiektu-pilotu bat martxan jartzeko aukera ikusten zuten". Dena den, aurrerantzean ikusi beharko da erakundeek erakutsi duten interesa zertan gauzatzen den. ■■■

Bartzelonako La Borda, eredu gisa

Bartzelonako La Borda izeneko egitasmoa da BizikoopOnek eredu gisa hartu duena Gasteizen etxebizitza komunitarioaren asmoa martxan jartzeko. Euskal Herrian ere badaude halako esperientzia gehiago, Donostiako Abaraska esate baterako, eta taldetxo txiki batzuk Nafarroan eta Bizkaian, baina gehienak hastapenetan daude.

Kataluniako La Bordako lagunak, berriz, urte luzeko lanaren ostean, abenduko zubian aldatuko dira etxez eta azkenik Sants auzoko eraikin bat okupatuko dute. Elba Mansilla La Borda kooperatibako kideak ALEAri azaldu dio 29 etxebizitza eraiki dituztela, eta guztira 50 lagun eta 11 haur biziko direla horietan. "Duela zazpi urte hasi ginen proiektuarekin, Can Batlló auzokideen plataformarekin lotutako talde

bat etxebizitzaren inguruan hausnartzen hasi zenetik, Bartzelonan etxebizitzaren arazoa dramatiko delako". Bi urte eman zuten aukera posible guztiak aztertzen, etxebizitza kooperatiba komunitarioaren ereduaren inguruko erreferentziarik ez zegoelako Espainiako estatuan, eta, hortaz, Europako iparraldeko herrialdeetan bilatu behar izan zuten eredu bat. 2014. urtean proiektua non kokatuko zuten zehaztu zuten, eta azken bi urteetan etxebizitzak eraikitzeko obra egin dute.

Arazo nagusiak erreferentzien falta eta jabetza

ZAZPI URTEKO LANAREN
OSTEAN, ABENDUKO
ZUBIAN INAUGURATUKO
DUTE LA BORDA

kolektiboa zigortzen duen antolamendu juridikoa direla azpimarratu du Mansillak. "Erakunde publikoek ezagutzen ez dutena ez dute aholkatzen, trabatzen dute; gainera, ez dituzte formula hibridoak aitortzen. Etxebizitzaren jabetza kolektiboa anomalia bat da norbanakoaren jabetzan oinarritutako egungo logikan".

"Melo" asko zabaldu behar izan dituzte La Bordako kooperatibistek; orain, urte luze hauetan lortu dituzten ezagutzak partekatu eta etxebizitza kooperatiboaren eredia bultzatzen ari dira. Argi dute une honetan ez dela jende guztiarentzat formula bat: "Ordu asko dedikatu behar dira, eta baliabide ekonomikoak behar dira; 18.500 euro inbertitu du bakoitzak, ez da sekulako prezioa, baina ez da gutxi".



"Leizeak ixtea ez da irtenbide bakarra; kudeaketa behar da"

AMAIA CASTELLANO GEOLOGO ETA ESPELEOLOGO

Natur Zientzien III. Topaketan parte hartu du Amaia Castellano geologoak, eta bertan leizeen kudeaketari buruzko hainbat proposamen mahai gainean jarri ditu. Ondare geologikoa babesteko kudeaketa integrala beharrezkoa dela babestu du adituak. Testua: **Juanma Gallego**. Argazkiak: **Laurent Richard**.

Geologia ikasten ari zela izan zuen lehen kontaktua espeleologiarekin Amaia Castellano (Gasteiz, 1980), eta, ordudunik, lurpeko munduari lotuta egon da beti. Orain doktoretza tesia egiten ari da karbonatita izeneko arrokei buruz, baina ardura horrek ez dio kendu lurpera joateko gogoia. Bertan guztiz bestelakoa den mundua dagoela dio, ezagutu eta babestu beharrekoa.

Zer irakatsi zizuten unibertsitatean espeleologiarekiko hainbeste zaletasun garatzeko?


Unibertsitate garaian hasi nintzen, baina ez unibertsitatean bertan. Tamalez, eskoletan oso gutxi irakatsi ziguten karstei buruz, baina gehiago irakatsi behar direlakoan nago. Nire zaletasuna kuadrillan hasi zen. Lagun batek esan zigun gogoia zuela espeleologia egiteko, eta Gasteizko Espeleologia Taldera jo genuen. Lagun horrek taldea utzi zuen, fisikoki oso gogorra zela esanez, baina gainerako hirurak hor geratu ginen.

Zergatik uste duzu karstei buruz gehiago irakatsi behar dela. Hain garrantzitsuak al dira?

Pirinioetatik Galiziaraino zabaltzen da kareharria, eta Euskal Herri gehiena karsta da. Horregatik,

gurean oso ohikoak dira haitzuloak, osinak, dolinak eta antzeko estrukturak. Hala izanda ere, oso gutxi ezagutzen dira. Jende askok, agian telebistagatik edo, oso ondo ezagutzen ditu Himalaiako mendiak edo Venezuelako tepuiak, baina bertoko ondare geologikoa ez dute apenas ezagutzen. Guztion errua da, agian, ezagutza hori zabaldu ez izana. Ezaguna da esaldia: "Ezagutzen ez dena ezin da babestu". Eta garrantzitsua da. Adibidez, bertoko akuiferoak oso hauskorak dira, beste inguru mota batzuen parean. Askoz errazagoa da karst bat kutsatzea. Osin batean zaborra botatzen bada, iragazkirik ez dago: berehala guztia doa barrura, maila freatikoraino. **Azken urteetan kutsadura mailetan onerako bilakaerarik ikusi al duzu?**

Ez, ez doa onera. Euskal Espeleologoaren Elkargoan noizean behin zabor asko duten leizeetara joaten gara. Normalean diru-laguntza izaten dugu horretarako, baina gehienetan hor geratzen da kontua. Administrazioak jarraipen handiagoa egin beharko luke kasu horietan: jendearen artean kontzientziazioa sortzeko baliatu behar dira halako egoerak. Adibidez, azaltzeko karsta zergatik kutsatzen den hain erraz.





Amaia Castellano espelelogoa, Gasteizen.

"BEHIN BADAIAKO OSIN BATEAN ZORUA ERE EZ NUEN ZAPALDU, HAINBESTE ZABOR ZEGOEN ETA"

"OSO ZAILA DA LURPEAN DUZUN SENTSAZIOA AZALTZEA. GUZTIZ BESTELAKOA DEN MUNDUA DA"

"TAMALEZ, INTERES GEHIEGI DUTE KARBONATITEK, BARRUAN MINERAL ESTRATEGIKOAK DITUZTELAKO"

Orduan, benetako zabortegeiak al daude hor?

Bai, hala da. Baso-pistak gertu dituzten leizeen kasuan, erraza da autoarekin igo eta osin batean zaborra botatzea. Ulertezina da, baina bada hori egiten duen jendea. Behin Badaiaiko osin batean zorua ere ez nuen zapaldu, horrenbeste zabor zegoen eta. Gero, dokumentazioa begiratuta, ikusi nuen 1960ko hamarkadatik bertatik esaten zela hor zabortegeia zegoela. Etsigarria da, zeren oso ondo baitakizu leizea garbitu eta urte batzuetara berriro zaborrez beteko dutela.

Hor behean altxor asko geratzen al dira aurkitzeko?

Sistema handienak aurkituta daude, baina, noizean behin, gauza gehiago ateratzen dira argitara. Adibidez, Gorobel mendizerran SI-44 izeneko leize-sistema dago. Aurkitu zenean, 40 kilometro ziren, baina galeria berriak aurkitzen ari dira. Kontuan izan behar da eskalatzeko gero eta teknika hobetoak ditugula, eta argiztapena ere asko hobetu dela: LED argiegi esker, lehen karburoekin ikusten ez zena erraz ikusten dugu orain. Gainera, espeleologoak burugogorak gara. Modu batean edo bestean, zulo bat ikusten dugunean beti aurkituko dugu pasabidea.

Segurtasuna faktore garrantzitsua izango da halako erabaki bat hartzerakoan, ezta?

Bai, noski, baina kontu zaila da. Batzuetan ikusten duzu bide bat gaizki dagoela, eta, halere, aurrera egiten duzu. Baina oso zaila da baloratzea noraino den arriskutsua bide bat hartzea. Iaz, espeleologo bat hil zen Galdamesen [Bizkaia], leizea goitik behera amildu zitzaionean. Hor ez duzu ezer egiterik, baina egia da gero halako ezbeharrak buruan geratzen zaizkizula. Dena dela, oso istripu gutxi daudela esango nuke. Zenbat jende hiltzen da, adibidez, errepidean?

Arrisku horren truke, sentipen polita izan behar duzue hor barruan. Nolakoa da?

Oso zaila da hori azaltzea; sentsazio bat da. Guztiz bestelakoa den mundu bat dago bertan. Gainera, erabaki ahal duzu norekin joan nahi duzun, zenbat denboraz... jakinda, gehienetan, beste inorekin ez duzula topo egingo han. Horrek magia berezia du.

Jenderik ez, baina bestelako bizidun askorik al dago lurpean?

Badira, bai, eta batzuetan uste baino askoz gehiago. Baina gehienetan ez dira ikusten; edo, behintzat, ez zara konturatzen. Horregatik, oso interesgarria da jende desberdinarekin joatea, bakoitzaren ikuspuntua daukazulako. Dena dela, batzuetan ez dago oso garbi non dagoen

mineralen eta bizidunen arteko muga. Duela urte batzuk, lagun geologo bat eta biok Arabako leize batera joan ginen topografia egitera eta esploratzera. Horretan ari ginela, oso lokatz bitxiak aurkitu genituen. Unibertsitatara jo genuen, mineralogista batekin hitz egitera. Mikroskopia bidezko analisisia egin genuen, baina iritsi zen une bat non oso ondo ez genekien lokatz hori mikroorganismoek egindakoa ala kimika hutsak sortutakoa ote zen. Mugak egon arren, ikertzea beti esperientzia polita da.

Topografia aipatu duzu. Nola osatzen duzue lurpeko munduaren mapa?

Lan handia egin behar da hori egiteko, eta, egia esanda, normalean jende gutxi apuntatzen da topografia egitera goazenean. Ohi baino astiroago zoaz, lokatz eta ur artean, hotz askorekin.

Normalean saiatsen gara esplorazioa eta topografia aldi berean egiten. Duela gutxira arte zinta metrikoa erabiltzen genuen, iparorratza eta inklinometroarekin batera, baina orain laser bidezko neurketak egiten ditugu.

Eta informazio hori guztia nonbaiten biltzen al da. Ba al dago leizeen 'Google maps' bat?

Bai, Euskal Herrian zentralizatuta daukagu. Euskal Espeleologoek Elkargoak biltzen du informazio guztia, eta webgunean partekatzen dugu. Horrez gain, *Karaitza* aldizkarian argitaratzen ditugu daturik interesgarrienak.

Doktoretza tesia egiten ari zara, baina, kasu honetan, espeleologiarekin zerikusirik ez dauka.

Lurpeko geologiari buruzko tesia gustura egingo nukeen, baina hemen oso zaila da gaiari buruzko ikerketak egitea, inori ez baitzaio interesatzen. Nire tesian Angolako karbonatitak ikertzen ari naiz; bolkanikoak zein plutonikoak izan daitezkeen arrokak dira. Karbonatozkoak dira, kareharrien antzekoak; baina, hauek ez bezala, arroka igneoak dira.

Eta gai horrek ba al du interesik?

Tamalez, interes gehiegi. Mineral estrategikoak dituzte barruan, elektronikarako erabilgarri izan daitezkeenak. Baina zientziaren aldetik ere

garrantzi handia dute, eta hori da niri interesatzen zaidana. Barruan magma burbuila oso ñimiñoak dituzte, eta, besteak beste, harri horien jatorria zein den argitzen saiatzen ari naiz. Baina ikerketa latza izan da. Birritan joan naiz Angolara, baina bisa lortzeko bi urte eman nituen. Hor ere ez nuen laguntza askorik lortu. Egoera nahiko kaskarrean daude Angolan, duela gutxi oso gerrate latza izan dutelako. Oraindik ere pertsonen aurkako minak daude mendietan. Emakumea izanda, are zailagoa izan zen kontua. Bertako mineral-hobi batera joan nintzen, baina bertan meategi bat zegoen, eta, ikertzeko baimena izan arren, ezin nuen harriarik hartu. Baina hartu nituen, noski. Harri horiek hona ekartzea ere zaila izan zen. Hor utzi nituen prestatuta, baina gero oso egoera txarrean bidali zizkidaten, batzuetan moztuta, berandu, nomenklatura aldatuta... Tesia egiten duzunean askotan administrazioak ez ditu halako gauzak kontuan hartzen, baina egoera ez da laborategi batean tesia egitearen parekoa.

Natur Zientzien topaketan leizeen itxierari buruz hitz egin duzu. Zergatik gai hori?

Antolakuntzatik gai hori proposatu zidaten, espeleologoek iritzia ezagutu nahi zutelako; kideen iritzia biltzen saiatu naiz ere. Egia esanda, aurreiritzi asko daude. Guztiok pentsatzen dugu leize bat giltzapean jarri gero leizea babesten dugula, baina gaia sakonki aztertzen duzunean konturatzen zara gauzak ez direla hain errazak. Itxierak berak jendea erakartzen du, eta jende asko haserretzen da leizea itxita ikusten duenean. Azkenean, harresi asko apurtzen dira, horren gaineko kudeaketa egokirik ez dagoelako. Nire ustez, heziketa beharrezkoa da, baina Bigarren Hezkuntzan gero eta gutxiago irakasten dira natur zientziak. Leizeen inguruetan ondare geologikoa azaltzen duten kartel gehiago behar dira. Zenbait leizetan agian galeria bakar batzuk baino ez dira itxi behar, edo urtaro zehatz batzuetan, animalien beharren arabera. Funtsean, kudeaketa integrala behar da, geologoek, biologoek eta arkeologoek iritzia kontuan hartuta. ■■■



(Ez)ezagunak



OIER LLINAS VILLASANTE

KAZETARIA

Gizona makurtuta doa kaletik, aldaka tolestuta ia angelu zuzen bat osatzen. Eskuak lau gurpiltxo txiki dituen takatata moduko batera heltzen dira, gorputz osotik tiraka egingo balute bezala. Orain dela asko ez dudala gizon hura kaletik ikusten eta naturak bere bideari tinko jarraitu diola ikusten dut, gizonaren bizkarra gero gehiago tolesten, gurpiltxoaren laguntzarik gabe ibili ezin izateraino. Aurreko aldian ikusi ez nuen beste zerbaite dauka gizonak oraingoan: laguntzaile bat. Emakume gaztea hizketan doa, eta irribarre batekin hitz egiten dion bitartean, gizonaren begiek gora egiten dute aurrean dutena ikusteko. Adinak behartuta, behetik gora begiratu behar dio etorkizunari. Denbora askotan maitale anker bat da.

Konturatu naiz urteak direla gizona nire bizitzaren parte dela. Plaza berberetan, gure egunerokotasunean igaro behar ditugun kale estu berberetan askotan gurutzatu dugu elkar, bata besteari ezer esan barik. Bi ezezagun euren kontuei bueltaka, ia egunero eta ordu berean, leku berean hitzordua izaten. Baina oraingoan, barrenbarrenean, ezezaguna den gizon horrengatik samin garratz bat sentitu dut.

Beharbada baina, gizon hori ez da hain ezezaguna. Norbaitek galdetuko balu esango nioke ez dakidala ez bere izena, ezta zertan lan egin zuen ere. Ez dakit bikoterik, seme-alabarik edo bilobarik dituen. Baina badakit, edo horrela pentsatu nahi dut, irakurtzea gustatzen zaiola, betaurrekoak erabiltzen dituelako. Baita tweet jak marroi bat erabili ohi duela, korbata krema batekin. Udazken koloreak gustuko baditu, beharbada, udazkenean jaiotako gizona da. Badakit, urteetan zehar eboluzioa ikusi dudalako, daukan gaixotasunari aurrez aurre begiratzen diola eta gorputzak behera doan arren, begiek gora egiten dutela. Beraz, egoerak egoera, munduak eskaintzen duena dastatu nahi duen agurea dela esango nuke.

Badakit ere denborak aurretik daukan guztia higitzen duela eta bi begi horiek ezingo diotela bizitzari aurrez aurre begiratu askoz denbora gehiagoz. Orain badakit egunero kaletik ikusten dudana ezezagun hori nire bizitzaren parte bat dela, eta, ordua heltzen denean, faltan botako dudala. ■■■

**ORAINGOAN,
EZEZAGUNA DEN GIZON
HORRENGATIK SAMIN
GARRATZ BAT
SENTITU DUT**

Gure GPSa



TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA
KAZETARITZA IRAKASLEA

Egia al da gasteiztarrok adostasunera iristeko dugun ezintasuna genetiko delako? Batzuen ustez, gure identitate propioaren erakusle da. Sarritan, kalean nahiz tabernan, eskolan nahiz lantokian, entzun dugu honelako zerbait: "Gurean ezinezkoa da zerbaitetan ados jartzea. Hori da hiri madarikatu honen patua. Ez dugu erremediorik, Bilbon, berriz...". Agian, herri izatetik hiriburua izateko bidean erantsi zaigun konplexua da.

Joan den astean, Goya gasolindegia zaharraren etorkizunaz piztu den zalapartaren haritik, hauxe bota zidan bat-batean lagun batek kalean:

-Txema, honez gero Gasteiz mundiala dela ba al zenekien?

Eta nik: Zer bada?

-Gure GPS partikularra dugu jauna; oso gurea den Gasteiztar Petoaren Sindromea: adostasunera iristeko ezintasuna, hain zuzen.

Purrustada bota eta gero, alde egin zuen gizonak; munduarekin haserre balego bezala, diosalik gabe. Egia esanda, lagunak esandakoari ez nion grazia handiegirik topatu, baina zer pentsa eman zidan. Errepaso egiten hasi nintzen. Desadostasun historiko edo auzi amaiezinen zerrenda handia da: Auditoriuma, autobus geltoki berria, intermodalaren kokapena, tranbiaren ibilbidea, Gasteiz antzokia, Goya gasolindegia... nahi adina osatu liteke zerrenda. Beste errepaso bat ere egiten hasi nintzen: gizarte-etxeak, eratzun berdea, alde zaharraren birgaitzea, autogestiorako eremuak, hiriak duen kultura-aniztasuna... Denok partekatzen ditugun erreferente oso onak ditugu gure artean eta ez ditugu behar bezala balioesten. Bigarren zerrenda osatu eta gero, ilun nuen kopeta zertxobait alaitu zitzaidan. Izan ere, ondasun material eta immaterial horiek ere hiriaren marka dira eta ez soilik gure ditzosozko biribilgune madarikatu horiek.

Gasteiztarrok kanpora goazenean harro egoteko motibo dezente ditugu; lotsarazteko ere bai, noski. Huskerietan katramilatzeak dugun gaitasuna handia da, baina hori lehia politikoaren ondoriozko ziztrinena da. Hemen bezala, Donostian, Iruñean, Baionan edota Bilbon ere; mundu ia osoan esango nuke. Beraz, ez dakit oso gurea ote den lagunak saldu nahi zidan GPS hori. Nire ustez, sentimendu hori hanpatuegi dago. Ez da hainbesterako. Gainera, Gasteizen ibiltzeko ez da GPSik behar. Koordinadak buruan garbi izanda zertarako tramankulu hori? ■■■

**PARTEKATZEN DITUGUN
ERREFERENTE OSO
ONAK DITUGU, ETA EZ
DITUGU BEHAR BEZALA
BALIOESTEN**

Uraren kudeaketa bateratuago baterantz

ERNESTO MARTINEZ DE CABREDO

URAREN EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARI
NAGUSIA

Uraren hornidura eta saneamenduaren kudeaketa da Arabako ibai eta hezeguneetara doan kutsadura-kargaren jatorri nagusia, eta, hortaz, bere kudeaketa zorrotza ezinbestekoa da lurraldearen jasagarritasuna lortuko bada. Toki erakundeen esku dagoen eskumen horrek, baina, badu zailtasun franko araudiaren eskakizunengatik, jardueraren zailtasunagatik edota kostu-egiturarengatik. Baita zerbitzu hori erakunde anitz txikietan antolatzeagatik ere.

Urtegi, ibai edota akuifero batetik hartutako ura erabili eta ibai batera ondo itzularazteko kudeaketa horrek baditu hainbat betebeharrak, eguneroko kudeaketaz, hodian mantentzeaz, ponpaketez, edateko uren edota hondakin-uren arazteaz haratago. Etorkizunean letorkizigukeen garapen urbanistiko berriei ur-zerbitzu ona emateko prestatu beharra dago, ibaiek erasan berririk jaso ez dezaten; uraren kudeaketan araudiek zorroztera egingo dutela jakitun, horiei egokitzeko lana aurreikusteko beharra dago; kolektoreetara isuritako uren erreglamendua onartzeaz gain, ezarrarazi egin behar da (baimendu eta kontrola egin); ordenantza fiskalak onartutakoan, tarifak ezarri behar dira zerbitzu ona



dagokion legez finantziatzeko; azpiegiturak planifikatu behar dira...Egun, horiek guztiak badute hobetzeko parada lurraldean.

Orobat, zerbitzu hori zorrotz kudeatzeak eragiten dituen kostu guztiak aintzat hartuta, orduantxe azalarazten da uraren ziklo urbanoaren erakunde kudeatzailearen tamainak berebiziko garrantzia duela. Izan ere, hornidura eta saneamenduaren erakunde kudeatzaile txikien integrazioak edateko uraren ekoizpena, zein erabilitakoan ibaira ondo itzultzearen kostuak murrizten ditu.

Aldiz, erakunde txiki eta isolatuaren bidez kudeatzeari eusten badiogu, kudeatze-kostu horiek altu jarraituko dute; ondorioz, tarifen bitartez kostu hori berreskuratzea zailago izango da, zerbitzua eskas finantziatuko da, eta ibaiek

erasanak pairatzen jarraituko dituzte.

Alabaina, Araban diren 300 gorako erakunde kudeatzaile txikiak erakunde handiagoetan integratzeak ingurumen-onura handia dakar: ibaira doazen isurketa baimenduak murrizten dira (beraz, kontrol zorrotzagoa errazten da), eta araztegi handien eraginkortasuna nabarmen altuago da (beraz, ibaira helduko den kutsadura, txikiagoa).

Horrengatik, hornidura eta saneamenduaren kudeaketak Arabako ibaien egoeran duen eragina jakinda, nago uraren ziklo urbanoaren kudeaketa aurreratuaren alde egin behar dela Arabako lurralde osoan: zerbitzu-profesionaltasunak eta baliabideen integrazioak hauspotuta. Behintzat, Arabako ibaiek egoera ona lortuko badute.

BIDALI ZURE GUTUNA:
erredakzioa@alea.eus

Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne), ALEAK eskubidea du gutuna laburtzeko eta alea.eus-en argitaratzeko.
Gutunarekin batera, bidali honako hauek: zure izen-abizenak, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia.



ALEA

*Laster beteko dira 4 urte ALEA aldizkariak argia ikusi
zuenetik. Zure laguntzari esker egin dugu aurrera eta
urte askoz gehiago betetzea espero dugu.*

Gurekin ospatu nahi al duzu?

*Zatoz eta ezagutu etorkizunera begira esku artean
ditugun sorpresak.*



Eabesiles



Artium museoa -- Azaroak 30 -- 20:00

SAREAN

@JUANMAGALLEG0

#Mastodon.eus

Sare sozial berria aurkeztu dute egunotan: *mastodon.eus*. Twitter moduko sarea da, 500 karaktere erabiltzeko modukoa, eta berez nazioarteko mastodon sarearen euskarazko *instantzia* edo eremua da. Sare berriaren sustatzaileek euskara hutsez aritzeko erreferentziazko sarea bilakatzea nahi dute mastodon, "burujabetza digitala eta soziala" bermatuz, eta software librea eta deszentralizatu erabiltzen dituen sare librea osatuz. ■■■



EUSKALTZAINDIA
@plazaberri

Mastodon.eus Euskararen eta euskal kulturaren komunitatearentzat sortutako sare soziala. 400 erabiltzaile gaude jada. Erdu!



DANI HERNANDEZ
@irundani

Mastodon.EUS erabiltzeko arrazoiak:
- Web protokolo ireki eta librea. - Instantzia euskalduna. - Ez dago publizitaterik - Oso erabilera erraza - ...



MARI SUSPERREGI
@msusperregi

Sare sozialetan ere #euskaraldia, twitter-etik mastodon-era jauzia! #toot-ak automatikoki #txio bihurtzen.



PATXI GAZTELUMENDI
@iPatxi

Mikroblogintza sare sozial #libre eta banatua martxan. Erabiltzaileak dira garrantzitsuena. 500 karaktere. #Euskaraz.



IAMETZA
@iametza

kaixo.mastodon.eus webgunean aurkituko duzu kontu bat sortu, pertsonalizatu eta lehen toot-a idazteko jakin beharreko guztia, baita ohiko galderen erantzunak ere. Animatu eta zatoz fedibertsora!



 IRUDITAN



Arabán, euskaraz eredugarri

Lazarraga Sarien bosgarren edizioan Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak, Trebiñu Sagardotegiak, Baiona Hortz Klinikak, Gamarrako Ostalaritza Eskolak eta Paul Urkijok jaso zituzten saria, Arabako alor sozioekonomikoan euskararen alde egindako lanaren aitortza gisa. Azaroaren 15ean, Gasteizko Artium museoa egindako sari banaketan bertan ezagutarazi zituzten irabazleak; horiek harriduraz jaso zituzten sariak, eta eskerrak ematearekin batera, aurrera begira euskaraz lan egiteko bidea egiten jarraituko dutela adierazi zuten, finkotasunez eta emandako pausoez harro. ■

Argazkia: Mirian Biteri.



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



Ana Belen Jimenezen hilketa matxista salatzeko Erriberabeitiko udaletxearen aurrean egindako elkarretatzea. ALEA

Justiziaren izaeraren kontra

Indarkeria sexistaren aurkako eguna da igandean. Araban ekintza asko antolatu dira horren inguruan; tartean, Bilgune Feministak justizia sistemaren kontra Gasteizko epaitegien deitutako elkarretaratzea.

MIRIAN BITERI GASTEIZ

Askotariko deialdiak daude iragarrita igandean izango den Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren bueltan. Euskal Herriko Bilgune Feministak, esaterako, injustizian oinarritutako sistema salatuko du aurten, eta *(In)justizia patriarkalaren gainetik saretze feminista* lelopean, elkarretaratzeak deitu

ditu azaroaren 25ean hiriburuetan. Gasteizen epaitegi parean egin dute hitzordua, 13:00etan.

Mugimendu feministaren arabera, epaitegiak ez dira "justiziagune", besteak beste, ez dutelako jotzen indarkeria matxistaren "errora". Arbuiatu du gizonen bulkada sexuala eta bortizkeria "naturalizatzen" dituztela, eta emakumeak, ordea, pairatzen dituzten

eraso sexisten "erantzule" bihurtzen dituztela. Horren ustez, gainera, Euskal Herriko azken erailketa matxistek agerian utzi dute judizialki salatzeak ez duela bermatzen emakumeak babesteko "bitarteko nahiko ezartzea".

Bestalde, ez du begi onez ikusten kartzela zigorrak gogortzearen aukera: "Gizon erasotzaileak sortu eta, indarkeria egiturazkoa ez bailitzan, gaixo mental edo basapiztia moduan zigortzen ditu. Horrela, ez da bortizkeriarekin amaitzen, ez baita bermatzen ez errepikatzea", eta horren aurrean, "erauntsi feminista" bultzatu beharra dagoela aipatu du.

Ekintzak Araba osotik

Epaitegi-tako elkarretaratzea ez da egunotan Araban antolatutako ekintza bakarra. Ostiralean, adibidez, Zuiako ikastetxe publikoetako neska-mutilek manifestu

feminista bat irakurriko dute eta udaletxeko balkoian pankarta bat zintzilikatuko dute eguerdian. Larunbatean, berriz, *2018ko Beldur Barik Jarrera* lehiaketa artistikoaren topaketa eta sari banaketa egingo dute, Gasteizen. El Pilar gizarte etxean musika, askotariko tailerrak eta askaria izan ostean, Europa jauregirantz kalejiran abiatuko dira parte-hartzaileak; bertan da eta sari banaketa.

Igandean, genero indarkeriaren kontrako martxak hartuko dituzte Samaniegok eta Ribabellosak; amaitutakoan, manifestua irakurriko dute eta mezuak idazteko aukera ere izango da herri bietan. Horrez gain, Artziniegan eta Okondon bideo grabazioa egingo dute, eta baita kontzentrazioak ere, Aiaraldeko beste hainbat herriekin batera. Aramaion ere omenaldia eta elkarretaratzea egitea dute aurreikusita.

Elkarrizketak ere izango dira; tartean, Gambian edo inguru hurbilenean emakumeen genitalen ebaketa desagerraraztea ahalbidetzeko esku-hartzeari buruz jardungo du Adriana Kaplanek Araian, Lapuebla de Labarcen eta Laudion.

Hainbat ekintza

23, ostirala

- **Murgia:** Oroko Ama Birjina eskolako eta institutuko ikasleen idatziaren irakurketa, 12:00etan.
- **Artziniega:** Indarkeria matxisten gaineko erakusketa, liburutegian.
- **Legutio:** Autodefentsa ikastaroa kultura etxean, 16:30ean.
- **Argantzun:** Zinea, 18:00etan.
- **Zanbrana:** *Perkuneskak* tailerra gizarte etxean, 19:00etan.

24, larunbata

- **Agurain:** *Gure elkarteetan berdintasuna txertatzen* tailerra Zabalarren, 10:00etan.
- **Bernedo:** *Artilezko asaltoa* tailerra, 18:00etan.
- **Gasteiz:** *2018ko Beldur Barik Jarrera* topaketa eta sari banaketa. Arratsalde osoan.

25, igandean

- **Samaniego eta Ribabellosa:** Indarkeria Matxistaren kontrako martxak, 10:00etan.
- **Aramaio:** Omenaldia eta kontzentrazioa plazan, 12:00etan.

- **Artziniega eta Okondo:** Bideo grabazioa eta elkarretaratzea, 12:00etan.
- **Aiara:** Bideo proiektzioa, 12:00etan. Gero, kontzentrazioa, karabana eta kalejira.
- **Amurrio:** Elkarretaratzea Juan Urrutia plazan, 13:30ean.

27, asteartea

- **Arespalditza:** *Mindfulness eta helburu pertsonalak* ikastaroa, 17:00etan.
- **Araia:** Adriana Kaplanen elkarrizketa, 18:30ean, Asparreneko udaletxean.

28, asteazkena

- **Langraiz Oka:** *Emakumeen ahaldunderako sareak ehunduz* ikastaroa, 18:00etan.
- **Zigoitia:** Solasaldia Irantzu Varela eta Josebe Iturriozekin kultura etxean, 18:30ean.
- **Lapuebla de Labarca:** Adriana Kaplan Assa ikastolan, 18:00etan.

29, osteguna

- **Laudio:** Adriana Kaplan kultura etxean, 18:00etan.

ASKE BIZI NAHI DUGU, EZ BIZIRAUN



AZAROAK 25, EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA





Ebro ibaira isuririk egon ez zela argudiatuta, gertakaria ez jakinaraztea erabaki zuten Garoñako arduradunek. PHOT. OK

Zesioa aurkitu dute Garoñan

Kutsaduraren jatorria duela 33 urtera arte kontrolrik gabe egondako aireztapen batean egon zitekeela uste du CSNk. Ekainean horren berri izan bazuten ere, astelehenerarte ez dute aurkikuntza zabaldu.

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Zesio-137 isotopo erradioaktiboaren aztarnak aurkitu dituzte Garoñako Zentral Nuklearreko bi euri-estoldatan. Turbinaren eraikineko teilatuko urak jasotzen dituzte bi estolda horiek. CSNren arabera, estolda horietatik beherako uretan ez da erradiazio aztarnarik aurkitu. Kutsadura horren jatorria 1985. urtera arte eraikin horretatik haizagailu bitartez kanporatzen zen airean egon daitekeela uste du CSNko ikuskatzaileak,

urte horretara arte aire hori kontrolrik gabe ateratzen zelako zentraletik.

Joan den ekainaren 26an atzeman zuten zentral nuklearraren kanpoaldean baina kontrolpeko eremuan kokatuta dauden bi estoldatan, baina joan den astelehenera arte CSN Espainiako Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak ez du zabaldu horren berri ematen duen ikuskaritza-agiria.

Ikuskatzailea joan eta hurrengo egunean aurkitu zituzten kutsa-

dura aztarnak, barruan zeuden lurrak espektrografia bidez aztertu eta gero. 0,0243 Bq/gr eta 0,0534 Bq/gr neurtu zituzten lagin horietan; estolden kontrolletako prozedurak ezartzen dituen mugak gainditzen zituzten kopuruak, alegia.

Zentraleko arduradunek erabaki zuten gertakaria ez jakinaraztea, beherago kokatutako estoldetan erradiaziorik aurkitu ez zutela argudiatuta, eta Ebro ibaira egon zitekeen isuria oso txikia izango litzatekeela esanez. Halere, ikuskaritza-agirian ikuskatzaileak Garoñako zuzendaritzaren kalkuluhori "erabat kontserbadoretzat" jo du.

Kutsadura horren jatorria kontrolrik gabeko aire irteera batean egon zitekeela uste dute, agiriaren arabera: "1985. urtera arte, jatorrizko diseinuari jarraiki, turbinaren eraikinaren estalduran gas efluenteen isurirako bide bat egon zen, kuantifikatu gabekoa, airea ateratzeko bi haizagailu modura".

oreka i.t.

corporate balance

INFORMATIKA ZERBITZUAK ETA SAP NEGOZIO-SOLUZIOAK



HAMAR URTE ENPRESAK HOBETZEN

EZAGUTU GURE WEBGUNE BERRIA



WWW.OREKAIT.COM



OREKA INFORMATION TECHNOLOGIES
Zumar Hiribidea 1, IV Eraikina · 243 Bulegoa
01013 · Vitoria-Gasteiz (Araba) · 945 067 219
orekait@orekait.com



ESANAK



BEÑAT FONTANEDA
ZINEGILEA

"Mugimendu eder bat sortzen ari da zinemagintzan, forma hartzen ari dena"



KATIXA AGIRRE
IDAZLEA

"Idazteko zeure barnera egon behar duzu, eta ume bat zaintzea justu kontrakoa da"



MARI CARMEN CARROQUINO
CARRION MUSIKA DENDAKO DENDARIA

"Jo ez duzun gitarra bat erostea ezezagun batekin ezkontzea bezala da"

ZENBAKITAN

Bidaiak

Forondako aireportuak bosgarren bidaia eskainiko du apiriletik aurrera. Palma izango da bosgarrena, Milan, Tenerife, Colonia eta Sevillaren ostean. Ryanair bidaien enpresak jakinarazi duenez, asteen bi bidaia izango dira Arabako aireportua eta Palma

artean, ostiral eta astelehenetan; Forondatik 14:30ean aterako dira, eta Palmatik 12:45ean bueltatuko dira. Ryanairrek emandako datuen arabera, 12.950 bidaiari atera edo iritsi ziren Gasteizko aireportura urrian, iaz baino %58,9 gehiago. Urtarrila eta urria bitartean, guztira, 120.451 bidaiari izan ziren; zama bidaiak, aldiz, behera egin dute.

5

25

Urteak

Gasteizko Beñat Etxepare antzokiak 25 urte bete ditu, eta hori ospatzeko programazio berezia antolatu dute. Teatro Paraiso antzerki taldeak, Udalaren babesarekin, bertan garatzen du herritar gazteenen arte alfabetizaziorako programa, eta ikasturte honetarako bederatzikuskizun prestatu dituzte; askotariko lanak izango dira Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHrako. Gai eta arte lengoia ugari barne hartzen dituen programazioa eskainiko dute.

585

Langileak

Patataren eta mahatsaren bilketa kanpainen sasoikako 585 langile aritu dira aurten. UAGA sindikatuak eman ditu datuok; iaz baino %20 kontratu gehiago bideratu dira sindikatuaren bitartez, eta %21 lan jarduera egin dira aurten. Dena den, arazo gehiago izan dituzte nekazariak sasoikako langileak kontratatzeko, eraikuntza moduko beste sektore batzuetan langileen eskaerak gora egin duelako eta soldata altuagoak ordaintzen dituztelako.

Kultur sektoreko kideak laguntzeko bulegoa ireki dute

Kultur sektoreko kideak lagundu eta gidatzeko, KulturAraba bulegoa ireki dute Gasteizen, Siervas de Jesus kalean. Kultura erakundeentzako eta profesional autonomoentzako informazio eta laguntza zerbitzua da hau. Eskura dauden baliabideen berri eman nahi dute, eta agente eta administrazioaren arteko bitartekaritza gunea izan nahi du bulegoak.



Kultur sektoreko zerbitzua da. URUÑUELA

la 7.000 lagunek eman dute izena Udaleko eskaintza publikoan

Urrian hasi zen izena emateko epea Gasteizko Udalak 132 lanpostu betetzeko deitu duen lan eskaintza publikorako, eta ia 7.000 lagunek eman dute izena. 50 espezialitateetatik, eskabide gehien jaso duten lanpostuak gizarte lana (886 izen-emate) eta jarduera soziokulturalen kudeaketa (558) izan dira. Lehenengo probak 2019ko martxoan egingo dituzte.

Velimir Perasovicekin, aro berria hasi du Baskoniak

Baskoniak Euroligan bide eskasa zeramala ikusita, klubak kargutik kendu du Pedro Martinez, eta Velimir Perasovic jarri du haren tokian. Hirugarren aldia da Perasovicek taldea zuzentzen duela, eta estreinu ona izan du oraingoa ere; Kanaria Handiaren kontra irabazi zuen Arabako taldeak, joan den igandean Buesa Arenan jokatutako partidari.

Garbiketa greba mugagabea deitu dute abenduaren 2rako

Irailen lortutako akordioa hautsi du FCC-GSM enpresak. Hala dio Gasteizko garbiketako langileek, eta, horregatik erabaki dute abenduaren 2tik aurrera greba mugagabea egitea. Bi arrazoi nagusi jarri dituzte langileek mahai-gainean; batetik, enpresak ez dituela ordaindu zor dizkien atzerapeak, eta bestetik adostutako aurretiko erretiroak ez dituela eman.



Mondragon
Unibertsitatea

ATE IREKIAK

UNIBERTSITATE
GRADUAK

2018/19



Learning from reality

Ez dago zuk sorturiko zerbait eskuartearen edukitzea bezalakorik

Ariane Atxa Gamboa
Etxarri Aranatz.
Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza. 3. maila.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE AZAROAK 24
LARUNBATA 10:30

GOIERRI AZAROAK 29
OSTEGUNA 17:30

ORONA IDEO ABENDUAK 15
LARUNBATA 10:30

ATE IREKIAK HIRIETAN:
DONOSTIA ABENDUAK 18 18:00
Kursaal Jauregia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
— Basque Culinary Center

DONOSTIA ABENDUAK 15
LARUNBATA 10:30

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA ABENDUAK 15
LARUNBATA 11:00

ARETXABALETA ABENDUAK 15
LARUNBATA 11:00

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BILBAO AZAROAK 24
LARUNBATA 11:00

OÑATI ABENDUAK 13
OSTEGUNA 18:00

BIDASOA ABENDUAK 15
LARUNBATA 11:00



Etorriko zarea jakinarazi!
902 110 436 — www.mondragon.edu/prest

Plazak hartuko ditu euskarak

Azaroaren 23tik abendura 14ra bitartean egingo dira aurten Euskararen Egunaren harira antolatutako jarduerak; besteak beste, aste bukaera honetan 'Kantari' eta hilaren 30ean 'ALEA festa' izango dira.

MIRIAN BITERI

Prest dute Gasteizko Udalak, Arabako Diputazioak eta Euskara Elkarguneak *11 Ber Bi* izeneko festibala. Aurten, ekimena antolatzerakoan "ezinbestekoa" izan da testuingurua kontuan hartzea; hain justu ere, ostiraletik abenduaren 3ra bitartean martxan izango den Euskaraldia dinamika. Hori kontuan izanda, egitarauaren harira prestatutako jarduerak denboran banatzea erabaki dute; hala, ekintzek Euskararen egunaren aurreko 11 egunak hartuko dituzte, eta baita ondorengo 11k ere.

Ostiralean bertan hasiko dira jarduerak, Euskaraldia beraren hasierarekin; 11:11 lean ekingo diote euskaldunek eta ia euskaldunek ekimenak proposatutako rolak erabiltzeari.

Asteburuan, berriz, haurrak eta musika izango dira jaun eta jabe. Pasa den asteburuan entseguak egin ostean, 380 neska-mutiko inguruk parte hartuko dute euskarazko kantak sustatzea helburu duen Kantari karaoke erraldoian. Aurten ere bikoitza izango da hitzordua, izan ere, larunbatean eta igandean grabatuko dira saio guztiak, Vital Kutxa Fundazioaren aretoan, Dendaraban.

Parte-hartzaile guztiei sarrerak banatu zaizkie,

Egitaraua

23, ostirala

- **11:11** Euskaraldiaren hasiera.

24, larunbata

- **Arratsaldez** 'Kantari', Dendaraban.
- **17:00** 'Euskaraz Jolastu' euskararen jaia, Zabalganan.

25, igandea

- **Egun osoan** 'Kantari', Dendaraban.
- **19:00** 'Denbora' ikuskizuna, Altraste dantza taldearen eskutik, Oihanederren.

26, astelehena

- **19:00** Euskaraldia. Elkarretaratzea, Falerinan.

27, asteartea

- **17:30** Musika topaketa, Oihanederren.
- **20:00** La Basu kantariaren rap kontzertua, Parralen.

29, osteguna

- **18:00** Ane Gebara ipuin kontalariaren 'Harriek kontatu didatena' emanaldia, Aldaben.
- **19:30** Sara Zozayaren kontzertua, Falerinan.

30, ostirala

- **20:00** Alea aldizkariaren jaia, IV. urteurrena ospatzeko. Artium museoa.

gurasoetz edo gertukoetz lagunduta joan daitezten. Baina, nabarmentzekoa da bertaratu ezin direnek emanaldi guztiak zuzenean ikusteko aukera izango dutela, *alea.eus* webgunean.

Kantari jaialdiaz gain, bestelako ekintzak ere badaude aurreikusita aste bukaerarako. Larunbatean, euskararen jaia egingo dute Zabalganeko gizarte etxean; besteak beste, umeentzako eskulanak, disko festa eta euskarazko jostailuen erakusketa izango dituzte. Igandean, berriz, Altraste dantza taldearen *Denbora* izeneko ikuskizuna dago Oihanederren; Zuriñe Benaventeren dantza eta Ignacio Monterrubioaren musika Karmele Igartuaren poesiarekin uztartuko dute emanaldi horretan.

Astelehenean, elkarretaratzea

Aste hasierarekin batera, azaroaren 26an, topaketa deitu dute Euskaraldiaren harira. Falerina tabernan elkartuko dira dinamika honetan parte hartuko dutenak, esperientzia ezberdinak trukatzeko asmoarekin.

Astearterako beste topaketa bat antolatu dute, baina kasu honetan, Gasteizko 16 eta 18 urte bitarteko gazteak dira bilduko direnak. Bertan, bi euskal musikari ezagutuko dituzte eta beraiekin solasean aritzeko aukera izango dute;



Kantari Gasteiz euskarazko karaokea egingo dute asteburuan. ALEA

tartean, musikari horien abestiak zuzenean eta modu akustikoan entzungo dituzte Oihaneder Euskararen Etxeko Ortuño aretoan.

Egun berean, musika kontzertua ere izango da, Parral tabernan; zehazki, rap emanaldia eskainiko du La Basu izeneko emakume kantariak. Euskal Herrian musika estilo hori jorratzen duen lehenetariko emakumea da Elena Caballero; baina rapaz gain, soula, reggaea eta flamenkoa ere nahasten ditu bere kontzertuetan.

Ipuin kontalaria eta kontzertua

Ane Gebara ipuin kontalari gasteiztarrak ere parte hartuko du aurtengo *11 Ber Bi* festibalean. Aldabe gizarte etxeko antzokian *Harriek kontatu didatena* ipuina kontatuko du ostegunean,

hilaren 29an; hain zuzen ere, Arabako herri ezberdinetatik egindako bidaiaria azalduko du, bertan jasotakoekin eta bizitakoekin. Interesatuak Oihanederren jaso behar dituzte emanaldi horretarako gonbidapenak.

AURTENGO KANTARI KARAOKEAN 380 NESKA-MUTIKO INGURU PARTE HARTZEN ARI DIRA

JOSU KAREAGA MAGOA ETA BIDELAPURRAK MUSIKA TALDEA ARITUKO DIRA ALEA- REN FESTAN

Ostegun horretan ere kontzertu akustikoa eskainiko du Sara Zozaya kantari donostiarrek Falerina tabernan. Lehen kantuak 12 urte baino ez zituela sortu zituen, ahotsa eta gitarrak lagunduta.

Bestalde, azaroaren 30erako, ALEA aldizkariak festa bat antolatu du bere laugarren urteurrena ospatzeko. Josu Kareaga magoak dinamizatuta hasiko da ekitaldia, eta Bidelapurrak talde gasteiztarrak kontzertua eskainiko du; mokadutxoak dastatzeko aukera ere izango dute Artiumeko Plaza aretora hurbiltzen direnek. Librea izango da jairako sarrera, lekuak bete arte.

Esandako egitarauan aurreikusitako gainerako jarduerak abenduaren 14ra arte luzatuko dira. ■

Sutsu arduratsu!

SEXUALITATEA



EMAIZE

SEXOLOGIA ZENTROA

Sexualitateak suteak piztu ohi ditu, eta azkenaldian zenbait erakunderen ekimenak izan dira fokoa. Madrilgo Udalak gazteei sexualitateari buruzko galderak egin omen dizkie, eta Nafarroako gobernua ikastetxeetan bultzatutako Skolae programa dugu. Emaizekoon Sexuen Heziketa programak desagerrarazi nahiko lituzkete hainbatek, gure ikuspuntua eta lana ezagutu gabe, aipatutako kasuetan bezala kanpotik eta hitz solteetan oinarrituko balira.

Ekimen hauek, gureak barne, kritikagarriak dira eta hobetzen laguntzen digu. Honek, ordea, fundamentuzko azterketa beharko luke. "Sexualitateaz klasean hitz egiten badute lehenago hasiko dira koitua praktikatzen", "masturbatzera behartzen dituzte", "zertarako nahi dute jakin gazteek sexualitateaz pentsatzen dutena, morboagatik?"... diote batzuek.

Sexuen heziketa egokia jasotzen duten pertsonak koitorako urgentzia gutxiago dute eta arriskuak ekiditen dituzte portzentaje altuagoan. Masturbatu edo ez, errespetu berdina merezi dutela landuko dugu, bakoitzak bere desioak ezagutu eta horren arabera ekingo du, ez diogu inori esango egin beharrekoa eta nahi duena beste norbaitekin



PIXABAY

bada, kontsentsua ezinbestekoa dela erakutsiko diogu. Gure helburuan ez dago morborik. Ume eta gazteek bere burua ezagutu, onartu eta modu positiboan adierazten ikastea, aldi berean besteak ezagutzen, onartzen eta beraiekin errespetuz harremanak egiten irakastea dugu helburu.

Sexualitatea bekatu eta zikin moduan hautematen duenak, gaitza ikusiko du gure jardueran eta zorigaiztoko ondorioak aurreikusiko ditu. Gaur egungo "antikristo" gisa azalduko gaituzte.

Azken batean bere barruak aztertzeari uko egiteko modu

**ERREALITATEAK DIO
SEXUALITATEAN
HEZTEA EZ DELA
MATEMATIKAK BEZAIN
GARRANTZITSUA**

erosoa da; besteak epaitu nire ez arakatzeko.

Erraz borroka daitezke kritika hauek eta gure helburuei jarraikiz lanean aritzea lehenesten dugu.

Erakundeek honetan duten ardura aipatu beharra dago. Batzuek egiten dute. Hezkuntza Jauralaritzaren eskumena da gurean, eta kurrikulumaren barne sexuen heziketa dago. Ikastetxe bakoitzaren esku uzten da zer eta nola egin. Autonomia horrek izango luke balioa, horretarako irizpideak eta finantzazioa balego. Errealitateak, ordea, bestela dio: sexualitatean heztea eta besteekin errespetuz harremanak egitea ez da matematikak edo gaztelania bezain garrantzitsua, eta apartekoaren papera du.

Bada garapen eta harreman positiboak bultzatzea baino garrantzitsuagorik guraso eta hezitzaileentzat? ■■■

'Violética'

MUSIKA



IGOR MUÑOZ

MUSIKAZALEA

Mazúrquica modérnica abestia osatzeko, Violeta Parrak aukeratutako hitz guztiak esdrujula bihurtu zituen. Ariketa linguistiko jostagarri haren helburua kantatzera zihoan kritika garratzei ukitu gozo eta barregarria ematea zen. Orain, Nacho Vegasek, txiletarrari gorazarre eginez, Violeta proparoxitono bilakatuta izenburua eman dio estudioko lan berriari: *Violética*. 60. hamarkadan Parrak egin legez, asturiarrak ere, aurreko ekainean argitaratutako abesti bilduma hitz gordinez eta salaketez bete du.

Nacho Vegasek atzean utzi ditu *La zona sucia* garaiko depresio mamuak, eta *Violética* lanean, ilusioa berrituta, etxeko bakardadea gainetik astindu eta ukabila altxaturik kalera jaitsi zaigu, berak esan bezala, bertan, gure auzoetan baitago beharrezko aldaketa politikoa ekar dezakeen herri indarra. Horregatik, beraz, biltzen dituen 18 emoziozko kontakizunak gizarte eragileek egingen duten lana babesteko sortu ditu; ez dira falta migranteen eskubideak aldarrikatzen duten kantak, patriarkatua salatzen dutenak, ekologismora hurbilduko gaituztenak... Antikapitalista izanik, kapitalismoak agerian uzten dituen akatsetara bideratuta daude haren gezi musikalak.



I. MUÑOZ

2010. urtean, Marxophone diskoetxe propioa sortzeko erabakia hartu zuenetik, Vegasek askatasuna lortu du nahi izandako lagun musikariez inguratzeko. Fitxaje berririk egin gabe, azken garaietako lankideak izan ditu bere esanetara: Leon Benavente taldeko 4 kideak, Manu Molina perkusionista eta Joseba Irazoki Berako multi-instrumentista. Eta goi mailako hiru artistaren kolaborazio puntualak: Maria Rodes katalana, Christina

**PARRAK EGIN LEGEZ,
ASTURIARRAK ABESTI
BILDUMA HITZ
GORDINEZ ETA
SALAKETEZ BETE DU**

Roseninge madrildarra eta Cristina Martinez El Columpio Asesino taldeko abeslari nafarra.

Grabaketa beste lagun baten etxean egin zen, Paco Locok Puerto de Santa Marian duen estudioetan, hain zuzen. Aipamen berezia merezi dute, baita ere, Miguel Brieua marrazkigileak eginiko ilustrazioek eta diskoa laguntzen duen kutxa-diseinuak.

Azaroak 23 dituen ostiral honetan, aspaldiko partez eta bandaz lagunduta, Nacho Vegasek Gasteizen eskainiko du kontzertua. Tradizioa, abangoardia, aktibismoa eta rock hotsak; osagai horiek guztiek izango dute lekua Jimmy Jazz aretoko oholdtza gainean. ■■■

Katedralen jatorria

GURE BAZTERRAK



Axarte

Kuadrilla: Trebiñu.

Udalerrria: Trebiñu.

Biztanleak: 1 (2017ko INEren datuen arabera).

Bitxikeria: *Estemeño* izeneko bidelapur bat bizi zen Axarteko koba batean; aberatsei lapurtzen ziena herriko behartsuei ematen zien.

ARGAZKIA: SANTA MARIA FUNDAZIOA

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Axarte herri txiki bat da, Trebiñu konderriaren barruan; 800 metroko altitudea du eta udalerriko garaiena da. Gaur egun etxe bakar batean da bizilagunik.

Ezaguna da Axarte XIII. eta XIV. mendeen artean bertako harrobietatik Gasteizko Santa Maria katedrala eraikitzekeo harriak atera zituztelako. Oso prezituak ziren garai hartan Axarteko lumakelak: "Mailuarekin harria apurtzen denean, arroka garbia agertzen da eta horretan ikus daiteke mineral berezia, Paleozenoko kaliza bat da lumakela, harri zuria edo harri argi arabarra ere esaten zaio".

Axarteko harria erabili dute Espainia aldeko hainbat tenplutan; hala nola, Santo Domingo de la Calzadako katedrala eraikitzekeo, Carrion de los Condesko Done Jakue elizan edo Avilako santuen sarkofagoan, besteak beste.

Santa Maria katedralaren Fundazioak Axarte eta Gasteiz arteko Harriaren Bidea berreskuratu zuen orain dela urte batzuk; katedralaren interes historiko eta artistikoa hurbileko paisaiako osagaiekin lotzeko asmoa zuen, eta Trebiñuko harriak Gasteizko muinora eramateko erabili diren ibilbide historikoen berri emate

ko baliatu du urtero antolatzen dituen txangoak. Izan ere, Santa Maria katedralaren eraikuntzan 4.992 tona harri garraiatzeko erabili zen bidea.

Hala jaso du Luis Martinez Torresen EHUko geologoak *La ruta de la piedra* liburuan. Torresen esanetan, 10.700 gurdi behar izan zituzten katedralera harriak eramateko. Idi-pare bakoitzak Axarteko harrobitik ateratako 460 kilo harri garraiatzen zituen. Gotikoa-ren amaieran utzi zuten Trebiñuko harria ustiatzen, ia agorturik zegoelako harrobia, eta gainera oso garestia omen zelako.

Hamabost kilometroko distantzia dago Gasteiz eta Axarte artean, baina bost orduko txangoan erraz zeharkatu daitekeen bidea da. Ganaduzaleek ibilbide hau ere zeharkatzen zuten larre batetik bestera animaliak eramatera joaten zirenean. Era berean, salgaiak Gasteizen eta Arabako Errioxa artean garraiatzeko erabiltzen zen basabidea.



ZURE ARABAKO TXOKO KUTUNAREN BERRI EMAN NAHI BADUZU, IDATZI PROPOSAMENA: erredakzioa@alea.eus

Irakurleen txokoa

POSTONTZIA



Haizea Rodriguez Bruña Gasteiz

Azaroak 19. Zorionak zure 35. udaberrian amatxo!!! Segi horrela animosa eta indartxu. Udaberria laster etorriko da eta familia handituko digun loretxoa jaioko da. Bitartean gozatu Enaitz, Aretx, Getari eta aitatzorekin ahalik eta gehien. Muxu potolo bana!!!

ZOZKETAK



Oparia harpidedunentzat

Artepanek argitaratutako 'Nam' errezeta liburua, ALEAko harpidedun guztiek doan jaso dezakete gure bulegoan:

Eskola kalea 10, 7. bulegoa.

Ordutegia: 9:00 - 18:00




Errigorako saskia

Abenduaren 11ra bitartean harpidetza egiten duten, edota harpidedun berri bat lortzen dutenen artean, Errigorako saski eder bat zozketatuko da, Erriberak emandako produktuekin gozatzeko.

PARTE HARTU: www.alea.eus/zozketak



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:
945 71 60 09
On-line:
alea.eus/harpidetzak
E-mailez:
harpidetza@alea.eus

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA Azaroaren 23tik 29ra

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ La Basu

Euskaraldiaren programazioaren barruan.

Asteartea 27, 20:30ean, Parral tabernan.

GASTEIZ Sara Sozaya

Eskilarapeko Soinuak zikloaren barruan.

Osteguna 29, 19:30ean, Falerina tabernan.

GASTEIZ EraBatera

Osteguna 29, 21:00etan, Jimmy Jazzen.

ANTZERKIA

AMURRIO 'Ele! Lauaxeta-Lorca'

Hitz, irudi, musika eta antzerki ikuskizuna. Gaztelaniaz eta euskaraz. Jon Maiak zuzenduta.

Larunbata 24, 20:00etan, Amurrio antzokian.

GASTEIZ 'Denbora'

Altraste dantza taldearen eskutik. Zuriñe Benaventeren dantza, Ignacio Monterrubioaren musika eta Karmelegartuaren poesiarekin.

Igandea 25, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

BERTSOLARITZA

IZARRA Bertso poteoa

Xabi Igoa eta Oihane Perearekin.

Ostirala 23, 19:00etan, frontoitik abiatuta.



MAKOKI FAKTORIA

GASTEIZ Mice

Emakumeen taldeek eskainitako euskarazko kontzertu akustikoen zikloak, Akustika izenekoak, Mice ekarriko du aste honetan oholza gainera. Miren Narbaizak gidatutako taldea izango da Gauekoak ekimenaren eskutik.

Igandea 25, 19:30ean, Luis Aranburu musika eskolan.

ARAMAIO Bertxoko sariketa

Sariketako hirugarren kanporaketa. Martin Abarrategi, Beñat Garaio, Xabier Antia eta Mikel Martin bertsolariekin.

Ostirala 23, 19:30ean, Zabolako elkartearen.

HAURRAK

GASTEIZ 'Euskaraz jolastu' jaia

Eskulan tailerra, disko-festa eta jokoen erakusketa.

Larunbata 24, 11:30ean, Ibaiondo gizarte etxean.

GASTEIZ 'Txoriburu' ipuina

Josune Velez de Mendizabalekin. 4-8 urte bitartean.

Larunbata 24, 17:00etan, Zabalganeko gizarte etxean.

GASTEIZ 'Sorgin txikia'

Antzerkia, Luaren eskutik. 4-8 urte bitartean.

Asteartea 27, 18:00etan, Arana gizarte etxean.

Jimmy Jazz Gasteiz

AZAROA

Os. 23 NACHO VEGAS

Lr. 24 RAÚL ARANSÁEZ ROCK FESTIVAL - 2018
THE FAITHLESS + THE ELECTRIC ALLEY
+ THE GOLD PHONES

Og. 29 ERABATERA
+ BAOBABS WILL DESTROY YOUR PLANET

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM



REMELLURI ARDOAK



2010. urteko
ERRESERBAKO ardoa

52€ 3 botilako kutxa

96€ 6 botilako kutxa



SOLAGÜEN ARDOAK

SOLAGÜEN

Manuel Quintano txuria
2017

54€ 6 botilako kutxa

2015. urteko
ardo ONDUA

45€ 6 botilako kutxa



LEZAUN ARDOAK



2017. urteko Lezaun 0,0 sulfito
(2017ko Zilarreko Ekardoa - Erraza)

28€ 6 botilako kutxa

2016. urteko
Lezaun Gazaga
(Nafarroako san-marikako haritz ardo onenaren saria, 2017)

40€ 6 botilako kutxa



PEDRO LUIS KONTSERBAK



ZAINZURIARIK

Zainzurri lodak, 8 12 aldi

38€ 6 poto



TOMATEA

Nekazaritza ekologikoko
tomate frituak

12€ 6 poto



BRUT NATURE MAINEGRA



MENDABIAKO CAVA

MAHATS MOTAK
%50 vura, %30 parellada,
%15 chardonney
LIGETAN ONDUA,
Hogei hilabete baino gehiago.
ALKOHOL GRADUAK
Bolumenaren %12,
guzi gorabehera.



44€ 6 botilako kutxa

ITURRI KONTSERBAK

ZAINZURIARIK

Zainzurri estro lodak, 13-16 aldi

24€ 3 poto



MAHALA SORTA




34€ Saskia

Mahala urdi azpikoa, 250g
Mahala paleta, 250g
Txaxoa lehona, 300g
Behi gastra, 550g
Sagar outzesa, 300g
Mahala solomua, 250g



ALFAR OLIOA



Oliba olio
birjina estra

75cl. %100 arbekina

43€ 6 botilako kutxa



URDETXE

BASATXERRI BESO ONDUA
(PALETA)

6 kilo inguruko beso ondua,
aste hazitako bertanekin eginia,
20 hilabeteko onize denboratik gorakoa.

65€ Paleta



Eskariak egiteko, jarri gurekin harremanetan
azaroaren 30a baino lehen.
Abenduaren erdialdean banatuko dira.

Osatu zure saskia!

Bidalketa
gastuak
DOAN

ASKE Bizirikatu
nahi dugu

Emakumeok argi dugu. Eta zuk?



Araba Foru
Aldundia
Diputazioa
Foral de Álava

*Araba da errukia
El reino es Álava*

25N Emakumeen aurkako
indarkeriaren kontrako eguna
Día Internacional contra
la violencia hacia las mujeres



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala